

PRENTSAURREKOA

VII JORNADAS DE SOLIDARIDAD CON LAS VÍCTIMAS.  
BIKTIMEKIKO ELKARTASUNERAKO VII. JARDUNALDIAK

---

Bakearen aldeko Koordinakundeak Biktimekiko Elkartasunerako VII. Jardunaldiak ospatuko ditu urriaren 13 eta 14an "*Oroimenerako Abotsak*" goiburuean. Gure ustez, gaur ere beharrezkoak dira esparru batzuk, biktimen errealtitatera hurbil gaitezen eta, horrela, aurrera egin dezagun beraien benetako aitortzan eta guztiontzako etorkizun zuzen eta askearen eraikuntzan.

*"Oroimenerako Abotsak"* izenburuarekin zera nabarmendu nahi dugu: jasaten dihardugun terrorismoaren errealtitate izugarria memoria kolektiboari erantsi behar diogula. Honen haritik, beren testigantzen bidez, beren hots partikular eta zehatzen bidez, transmititu zaigun biktimen bizipenak indarkeriak sortu duen samina eta urte luzez erakutsi dugun gizatasunik eza agertzea ematen dizkigu.

Urtero ospatzentz ditugun Jardunaldi hauetan, biktimen eta beren senideen testigantzek, hain zuzen ere bidegabekeria sakon hau jasan dutenen kontakizunek dute lehentasuna. Horregatik, beste ezer baino lehen, beren testigantak gogora ekarri eta jendaurrean eskaintzeko, gu beraien bizipenetara hurbilarazteko egiten duten ahalegin handia eskertu nahi diegu.

**KONPROMISOA INDARKERIAREN BIKTIMEKIKO ELKARTASUN,AITORPEN ETA OROIMENAREKIN**

Biktimak ikusgai bihurtzea ahalbideratu behar dugu. Sortu dien oinazea egundokoa da eta jasan duten bidegabekeria, izugarria. Baino, gainera, **galeraren saminari, burututako eraso bakoitza justifikatzen eta delako testuinguru baten sartzen saiatzen den gizartearen zati batek eragiten duen etengabeko oinazea gehitu behar zaio eta baita aitorpen eskasa ere gainerako herritaren aldetik.**

Ezin dugu ahaztu indarkeriaren biktimak zeintzuk diren: terroristek aukeratu dituzten gizon eta emakumeak dira eta beraiek jasaten dute gizarte osoari, bere borondatea makurtu eta menperatzeko asmoaz, zuzendutako erasoa. Izan ere ETAK eta berau babesten dutenek beren nagusitasuna ezarri nahi dute eta beldurtu egin nahi gaituzte **gure auzokide diren gizon eta emakumeak asasinatuz eta mehatxatuz**. Errealitate hori aitortzeak beraiekiko eta beren senideekiko elkartasun handia gauzatzera eta sendo lan egitera behartzen gaitu, **bizikidetasuna normaltzeko bidean indarkeriari behin-betiko zilegitasuna ken diezaiogun.**

Biktimen errealtitatea ezagutzeko eta beraientzana hurreratzeko biderik onena biktima bakoitzarengandik bere esperientzia pertsonala, bere nahi eta erreklamazioak, **beraien arteko desberdintasunak eta denek bizi izan dutena: eraso terrorista jasan izana**, entzutea da. Beren testigantzak eskainiz, biktimek beraiekin iraganaldirako bidaia egiteko aukera ematen digute eta, horrela, jasan zuten oinazea eta bidegabekeria eta gizartearen babes eskasak eragin zien bakardadea ezagutzeko. Horrela, beren oroitzapenean lagun egin diezaiekegu eta behar adina arrazoi eta elkartasun jadets dezakegu, ahal den neurrian jasan duten bidegabekeria zuzentzeko.

## INDARKERIARI ZILEGITASUNA KENDU

Beharrezkoa eta *biktimekiko dugun betekizuna* delako. Biktimei ordain zuzen eta eraginkorra ematea dagokigu. Biktimak egote hutsak indarkeriari buruzko edozein aitzakia eta justifikazio ezabatzea exijitzen digu, indarkeria inork inoiz baliagarritzat uler ez dezan eta gizarte osoari eta, batez ere, terrorismoaren eragin zuzena jasan dutenei, egundoko samina eragin diela ahantz ez dezan.

Horregatik, gure iritziz nahitaezkoa da indarkeriari zilegitasuna kentzeari begira jarrera koherenteak erakustea, eta horrek ETArri ezetz esatea baino askoz gehiago eskatzen du:

- Indarkeriari zilegitasuna kentza, ez dagoela eta ez dela inoiz izan indarkeria terrorista erabiltzeko justifikazio eta aitzakiarik aitortzea da eta, ondorioz, biziaren eta giza eskubideen erabateko defentsa egitea.
- Indarkeriari zilegitasuna kentza, terrorismoak deuseztatu nahi duen euskal giartearen aniztasuna defendatzea da.
- Indarkeriari zilegitasuna kentza, indarkeriaren eta arazo politiko baten artean kausazko lotura ezarri nahi dutenak moral eta politikoki ezeztatzea da. **Ez dago eragindako oinazea justifika dezakeen inolako arrazoirik.** Indarkeria erabiltzea, gutxi batzuek, izua eta samina erabiliz, gainerako guztiei beren egitasmo politikoa ezartzeko hartu zuten erabakiaren –erabaki okerraren- emaitza da.
- Indarkeriari zilegitasuna aktiboki kentza, babesten edo justifikatzen dutenei horren bitartez ez dutela helburu bakar bat ere lortuko argi uztea da, jarduera terroristan iraunez zein indarkeria erabiltzeari uko egitea edo ez egitea txantajea egiteko erabiliz, ez dutela ordain politikorik lortuko ikustaraztea. Eragiten dizkigutenean nazka eta amorruek gauza bakar bat lortuko dute: ETA EZ esaten jarraitzea.

## JARDUNALDIAK

Zazpigarren urtez Jardunaldiok antolatzean, Bakearen aldeko Koordinakundeak indarkeriari eta honen ondorioei buruz hausnartzeko eta biktimen testigantzak zuzenean entzuteko aukera emango digun esparru lasaia sortu nahi du.

Testigantza hauek dute lehentasuna Jardunaldiotan, biktamei zuzen-zuzenean entzuteak, terrorismoaren erasoa hur-hurrik jasan dutenen bizipenak entzutea ikasgai guztiz aberatsa da eta hortik, enpatia eta elkartasuna sortzen dira nahitaez. Horretarako, 6 biktimak eskainiko dizkigute beren testigantzak: 1983. urtean Euskal Herrian asasinatu zuten zibil baten alarguna, 1995. urtean Madrilen asasinatu zuten herritar baten alaba, 1990. urtean Euskal Herrian asasinatu zuten funtzionario baten anaia, 1991. urtean Euskal Herrian asasinatu zuten haur baten aita, 1990. urtean atentatua jasan zuen polizia nazionala eta urte asko jazarrita daramatzan zinegotzia<sup>1</sup>.

Era berean, M<sup>a</sup> Eugenia Rodríguez Palop Madrileko Carlos III.a Unibertsitateko 'Bartolomé de las Casas' Giza Eskubideen Institutuko zuzendariordeak **Biktimen Estatutu Morala** gaiaren inguruau jardungo dau eta Deustuko Unibertsitateko Teologia Eskolaren sortzaile den eta euskal gizartearen hondatze moralaz oso kezkatuta dagoen Alfredo Tamayo Ayestarán jesuitak **Memoriaren esanahia** gaiari buruz hausnartuko du.

Jardunaldi hauekin, biktimengana hurbiltzeko eta indarkeriaren aurkako jarreran sendotzeko bidea eskaini gura dugu guziontzat. Dei egiten diegu herritar guztiei, urriaren 13 eta 14an oriomenerako abotsak entzutera eta gure memoria kolektiboa sustatzera hurbil daitezen. Arratsaldeko 7,00etatik aurrera izango dira jardunaldiak, astelehenez, urriak 13, Donostiako 'Koldo Mitxelena' aretoan eta astearte, urriak 14, Bilboko 'Nervión' Hotelean. Zain gauzkazue!

---

<sup>1</sup> Las Jornadas se realizarán con la colaboración del Ayuntamiento de San Sebastián y de la Dirección de Atención a Víctimas del terrorismo del Gobierno Vasco.

RUEDA DE PRENSA

## VII JORNADAS DE SOLIDARIDAD CON LAS VÍCTIMAS<sup>1</sup> BIKTIMEKIKO ELKARTASUNERAKO VII. JARDUNALDIAK

---

Gesto por la Paz, organiza para los próximos días 13 y 14 de octubre las VII Jornadas de Solidaridad con las Víctimas, con el título “**Voces para la memoria**”. Consideramos que siguen siendo necesarios espacios que posibiliten que quienes conformamos la sociedad nos acerquemos a la realidad de la víctimas como forma para avanzar hacia su auténtico reconocimiento y así contribuir a construir un futuro justo y libre para todos y todas.

Con el título “Voces para la memoria” queremos destacar que debemos incorporar en la memoria colectiva la terrible realidad del terrorismo que estamos sufriendo. En este sentido, la vivencia de las víctimas, transmitida en sus testimonios, sus voces particulares y concretas, nos muestran el dolor generado y nos rebelan la profunda deshumanización en la que hemos vivido durante muchos años.

En estas Jornadas, que venimos celebrando anualmente, ocupan un lugar preferente los testimonios de las víctimas y sus familiares, el relato de quienes han sufrido esta profunda injusticia. Por ello, queremos, antes de nada, agradecer el enorme esfuerzo que realizan para recordar y ofrecer en público sus testimonios, para permitirnos acercarnos a sus vivencias.

### **COMPROMISO CON LA SOLIDARIDAD, EL RECONOCIMIENTO Y LA MEMORIA HACIA LAS VICTIMAS DE LA VIOLENCIA.**

Debemos posibilitar que las víctimas puedan hacerse visibles. El dolor que se les ha generado es inmenso y la injusticia de la que han sido objeto, terrible. Pero, además, **al dolor de la pérdida hay que sumar el sufrimiento permanente que produce que una parte de nuestra sociedad continúe justificando y tratando de contextualizar cada una de las agresiones realizadas** y, además, el todavía insuficiente reconocimiento por parte del resto de la ciudadanía.

No podemos olvidar que las víctimas de la violencia terrorista son aquellas personas que han sido escogidas por los terroristas para recibir directamente el ataque dirigido contra toda la sociedad con el objetivo de doblegar su voluntad y someterla. No podemos olvidar que ETA y quienes les apoyan tratan de imponerse y amedrentarnos **asesinando y amenazando a hombres y mujeres que son vecinos nuestros**. El reconocer esta realidad nos obliga, además de a practicar una inmensa solidaridad hacia ellas y hacia sus familiares, a trabajar para que en **nuestro camino**

---

<sup>1</sup> Las Jornadas se realizarán con la colaboración del Ayuntamiento de San Sebastián y de la Dirección de Atención a Víctimas del terrorismo del Gobierno Vasco.

**hacia la normalización de la convivencia, la violencia quede definitivamente deslegitimada.**

La mejor manera de conocer y acercarnos a la realidad de las víctimas es escuchar de cada una de ellas, su experiencia personal, sus deseos y reclamaciones, **sus diferencias y lo que tienen en común: haber sido objeto del ataque terrorista.** Mediante sus testimonios, las víctimas nos permiten ir al pasado con ellas y conocer el dolor que padecieron, la injusticia que sufrieron y la soledad que sintieron porque la sociedad no les arropó suficientemente. Así nos dan la oportunidad de acompañarles en su recuerdo y cargarnos de razones y de la solidaridad necesaria para trabajar por reparar en lo posible la injusticia que han sufrido.

## **LA DELEGITIMACION DE LA VIOLENCIA**

**La deslegitimación de la violencia es una necesidad y una obligación hacia las víctimas. Su propia existencia nos exige eliminar cualquier pretexto y justificación con la que se pretende contextualizar su uso porque no debería ni siquiera percibirse que la violencia haya podido servir para algo más que para crear un inmenso dolor a las víctimas y distorsionar los valores en la sociedad.**

Por ello, consideramos prioritario mantener actitudes coherentes con la necesaria deslegitimación de la violencia, lo que implica mucho más que decir no a ETA.

- Deslegitimar la violencia supone asumir que no hay, ni ha habido justificación ni disculpa para el ejercicio de la violencia terrorista, y por lo tanto, realizar una radical defensa de la vida y de los derechos humanos.
- Deslegitimar la violencia supone defender la pluralidad de la sociedad vasca, que el terrorismo intenta eliminar.
- Deslegitimar la violencia supone desautorizar moral y políticamente a quienes pretenden establecer un nexo causal entre la violencia y un problema político. **No existe ninguna causa o razón que justifique el dolor ocasionado.** El recurso a la violencia es fruto de una decisión –errada- por la que unos pocos optaron para tratar de imponer al resto de la sociedad su proyecto político, sirviéndose del terror y del dolor.
- Deslegitimar activamente la violencia supone dejar claro a quienes la apoyan o justifican que no van a conseguir ninguno de sus objetivos a través de ella, que la sociedad no va a ceder en sus principios éticos y democráticos, que no van a conseguir ninguna contrapartida política, ni como consecuencia de la persistencia de su actividad terrorista, ni como chantaje para conseguir su cese. El hartazgo y la rabia que nos causan, solo van a lograr que continuemos repitiendo NO A ETA.

## **LAS JORNADAS**

Con la organización de estas Jornadas por séptimo año consecutivo, Gesto por la Paz pretende crear un espacio sosegado que nos permita reflexionar sobre la violencia y

sus consecuencias y en el que podamos escuchar directamente los testimonios de las víctimas.

Estos testimonios ocupan un lugar preferente en estas Jornadas porque escucharlos de primera mano, escuchar las vivencias de quienes más cerca han sufrido el ataque del terrorismo es una lección inmensamente rica de la cual surge inevitablemente la empatía y la solidaridad. Para ello contaremos con el testimonio de 6 víctimas: una viuda de un civil asesinado en el País Vasco en 1983, la hija de un civil asesinado en Madrid en 1995, el hermano de un funcionario asesinado en el País Vasco en 1990, el padre de un niño asesinado en el País Vasco en 1991, un policía nacional que sufrió un atentado en 1990 y un concejal perseguido desde hace años.

Asimismo contaremos con la reflexión que nos va a ofrecer M<sup>a</sup> Eugenia Rodríguez Palop, subdirectora del Instituto de Derechos Humanos Bartolomé de las Casas de la Universidad Carlos III de Madrid: *El Estatuto Moral de las Víctimas*, y Alfredo Tamayo Ayestarán, jesuita, Fundador de la Escuela de Teología de la Universidad de Deusto y persona muy preocupada por el deterioro moral de la sociedad vasca, *El significado de la Memoria*.

Con estas Jornadas pretendemos ofrecer a la sociedad un cauce que nos aproxime a la realidad de las víctimas y que fortalezca y reafirme nuestra convicción contra la violencia. Invitamos a toda la ciudadanía a que se acerque los próximos días 13 y 14 de octubre a escuchar y a alimentar nuestra memoria colectiva con las *voices de las víctimas*. A las 7 de la tarde, el lunes 13, en la sala Koldo Mitxelena en Donostia-San Sebastián, y el martes 14, en el Hotel Nervion de Bilbao os esperamos.

**COORDINADORA GESTO POR LA PAZ DE EUSKAL HERRIA  
EUSKAL HERRIKO BAKEAREN ALDEKO KOORDINAKUNDEA**

9 de octubre de 2008

